



EBAZPENA, 2022KO ABUZTUAREN 30EKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EPE JAKIN BAT IREKITZEN BAITA EPAIAK BETEARAZTEAREN EDO LANGILEAK LEKUALDATZEAREN ONDORIOZ ZERBITZUAN DAUDEN LANGILEEK LAN-POLTSETAN SARTZEKO ESKAERA EGIN DEZATEN.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzua emango duten langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 4.3 artikulua honakoa ezartzen du:

«Halaber, epaien betearazpenari edo langileen lekualdatzeari lotuta EAEko Administrazio Orokorrean lan egiten duten pertsonak zerbitzuak ematen hasten diren unean sartuko dira egoki den kidego, eskala, aukera edo lan-kategoriaren lan-poltsan, aurretik zeudenen atzean eta zero punturekin, baina betiere eman diren zerbitzuen izaera aintzat hartuta».

Langile batzuk epaiak betearaztearen edo langileak lekualdatzearen ondorioz ari dira lanean, eta ez daude EAEko Administrazio Orokorrearen lan-poltsetan sartuta. Hori dela eta, 2022ko uztailaren 15eko mahai sektorialean, aktan jasotakoaren arabera, ordezkariak sindikalaren gehiengoak epe jakin bat ezartzea erabaki du, 4.3 artikuluko kolektiboak aukera izan dezan ematen ari den zerbitzuko lan-poltsako kide izatea eskatzeko.

Ebazpen honen bidez, honako hauek ezartzen dira: nor har dezakeen parte, zein lan-poltsatan sar daitezkeen, aukera hori gauzatzeko epeak, eta prozesuaren publizitatea.

Honako hauek hartu ahal izango dute parte: lan-poltsetan sartuta ez dauden langileek, ebazpen hau ematen den egunean EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetan zerbitzua ematen ari badira, betiere ematen ari diren zerbitzuaren jatorria epaien betearazpena edo langileen lekualdaketa baldin bada.

Kolektibo horrek eskatu ahal izango du betetzen ari den lanpostuaren lehentasunezko eskalako, edo, hala badagokio, lan-kategoriako lan-poltsan sartzeko. Integrazioa aipatutako araudian eta ebazpen honetan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

Eskaerak elektronikoki egingo dira, Erregistro Elektronikoko Orokorrearen bidez, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, horretarako ezarritako epean; eta, eskaerak aztertu eta ebatzi ondoren, lan-poltsen zerrendak Lan-poltsen Atarian eta Enpleguaren Atarian argitaratuko dira.

Horregatik guztiagatik, eta 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren azken xedapenetako bigarrenak emandako ahalmenekin bat etorriz (horien bitartez, gaitasuna ematen zaio organo honi agindu hau aurrera eramateko beharrezkoak izan daitezkeen alderdiak modu osagarrian garatzeko), honako hau



## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 10 egun baliouduneko epea irekitzea, 2022ko irailaren 1etik 14ra, biak barne, ebazpen hau ematen den egunean EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetan zerbitzua ematen ari diren (eta, zehazki, epaiak betearaztearen edo langileak lekualdatzearen ondorioz lanean ari diren) jarduneko langileek aukera izan dezaten betetako lanpostuaren lehentasuneko eskalari edo lan-kategoriari dagokion lan-poltsan sartzeko eskaera egin dezaten.

Bigarrena.– Eskaerak Erregistro Elektronikoko Orokorren bidez egin beharko dira (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), Funtzio Publikoko Zuzendaritzari bidalita, eta honakoa adierazita gaian: “Lan-poltsetan sartzea”. Era berean, I. eranskineko datuak jasotzen dituen dokumentua ere erantsi beharko da.

Hirugarrena.– Lanpostuen Zerrenda kontuan hartuta, betetako lanpostuaren lehentasuneko eskalako edo lan-kategoriako lan-poltsan sartuko da, zero punturekin eta lan-poltsetan daudenen atzetik.

Pertsona batek baino gehiagok eskatzen badu lan-poltsa berean sartzea, irizpide hauek hurrenez hurren aplikatuko dira:

- 1.- Emakumeari emango zaio lehentasuna, baldin eta, kasuan kasuko eskalako lan-poltsan, emakumeen ordezkari % 40koa baino txikiagoa bada.
- 2.- Eskalako lanpostuetan duten antzintasuna.
- 3.- Administrazio honetan zerbitzuak ematen igaro duten denbora.
- 4.- Administrazio honetan antzintasunik handiena izatea.
- 5.- Egiatztatutako hizkuntza-eskakizunik handiena izatea.

Laugarrena.– Interesdunen eskabideak ebatzi ondoren, dagozkien lan-poltsetan sartuko dira, eta, Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen baten bidez, sortutako lan-poltsak argitaratuko dira Lan-poltsen Atarian eta Enpleguaren Atarian, jakinarazpenetarako.

Bosgarrena.– Lan-poltsak aipatutako tokietan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak integrazioak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau Lan-poltsen Atarian eta Enpleguaren Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 30a.

Sin.: JOSÉ MARÍA ARMENTIA MACAZAGA  
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

## I. ERANSKI NA

### BETETAKO LANPOSTUAREN LEHENTASUNEZKO ESKALAKO EDO LAN-KATEGORIAKO LAN-POLTSAN SARTZEKO ESKAERA

NAN:

Izen-abizenak:

Lan-harreman mugagabea deklaritzen duen lekualdatzearen edo epaiaren kolektiboa:

Behean sinatzen duenak, gaur egun EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetan zerbitzua ematen ari denak, berariaz eta formalki adierazten du betetzen duen lanpostuaren lehentasunezko eskalari, edo, hala badagokio, lan-kategoriari dagokion lan-poltsan sartzeko borondatea, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera, zeinaren bidez epe jakin bat irekitzen baita epaiak betearaztearen edo langileak lekualdatzearen ondorioz zerbitzua ematen ari diren langileek lan-poltsetan sartzeko eskaera egin dezaten.

.....(e)n, 2022ko irailaren .....(e)(a)n.

Sinadura:

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA